



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko uztailaren 5a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Eremu mistotik irteteko edo hartan sartzeko udal ekimenei buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eremu mistotik irteteko edo hartan sartzeko udal ekimenei buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Erakundeak egindako txostena, eremu mistotik irteteko edo hartan sartzeko udal ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Arartekoaren txostena, Nafarroako Parlamentuak eskatuta egina, eremu mistotik irteteko edo hartan sartzeko udal ekimenei buruzkoa

AURKIBIDEA

- I. Sarrera. Txostenaren arrazoia eta xedea (2. or.).
- II. Nafarroako Arartekoaren eskumena, txostena egitekoa (3. or.).
- III. Aldez aurretiko gogoetak (3. or.).
- IV. Gaur egun eremu ez-euskaldunean dauden udalerriak eremu mistoan sartzeari buruzko gogoetak (4. or.).
- V. Gaur egun eremu mistoan dauden udalerriak eremu ez-euskaldunean sartzeari buruzko gogoetak (7. or.).
- VI. Azken gogoetak (11. or.).

I. SARRERA. TXOSTENAREN ARRAZIOA ETA XEDEA.

2017ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteek eskatuta.

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat urgentziaz egin dezan, zehazte aldera udalerririk ez diren eremu mistotik irteteko edo hartan sartzeko udal ekimenek herritarren egungo hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten eta Euskarari buruzko Foru Legearen eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuen arabera diren”

Eledunen Batzarraren erabakia 2017ko maiatzaren 16an igorri zitzaion Nafarroako Arartekoaren erakundeari, eta haren erregistroan alta eman zitzaion. Erabaki horri Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioen eskaeraren testua gehitu zitzaion, Nafarroako Arartekoak urgentziazko txostena egin zezan Zizur Zendeako Udalak 2017ko maiatzaren 10ean onetsitako ekimenari buruz; izan ere, udal horrek Euskarari buruzko Foru Legeko eremu mistotik irtetea eskatzen zuen. Zehazki, erantsitako idazki horretan Nafarroako Arartekoari iritzia eskatzen zitzaion honako alderdi hauei buruz:

– Ea udal ekimenak herritarren egungo hizkuntza eskubideak errespetatzen zituen.

– Ea ebazpen hori Euskarari buruzko Foru Legearen helburuen arabera den.

– Ea ebazpen hori Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuen arabera den

II. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ESKUMENA, TXOSTENA EGITEKOA.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera aztertuta, erakunde honek jo zuen bat zetorrela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.d) artikuluan xedatutakoarekin.

Arau horren arabera, Nafarroako Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumenen esparruan, zeina baita Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobetzea.

Eskaera kasuan kasuko udalaren borondatea –Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko eremu mistotik irteteko zein bertan sartzekoa– adierazten duten udal ekimenei buruzkoa da, eta, halaber, planteatzen du ea udal ekimen horiek Euskarari buruzko Foru Legearen eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren (Estrasburgon, 1992ko azaroaren 5ean egin zen itun hori) helburuen arabera diren eta hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten.

III. ALDEZ AURRETIKO GOGOETAK.

Txostenaren edukian sartuta, beste ezer baino lehen, erakunde honek egokitzen jotzen du aipatzea bere iritziz txosten-eskaeran aipatzen diren udal ekimen guztiek honako ezaugarri hauek badauzkatela:

a) Ezin dira hartu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.c) artikuluan jasota dagoen udalen legegintza-ekimenaren esparruko egintzat edo erabakitzat. Nafarroako Udalen Legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legeak garatu zuen gero ekimen mota hori.

b) Ezin dira, ezta ere, hartu Euskarari buruzko Legearen 5.1.b) artikulua bigarren paragrafoaren –gaur duen testuaren arabera– esparruan hartutako erabakitzat, zeren eta arau horrek ezartzen baitu eremu misto hori hedatu ahalko dela Aranguren, Belaskoango, Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzen badu erabakia, eta erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dela.

c) Ekimen horiek udalen borondate politikoa adierazten dute; hain zuzen ere Euskarari buruzko Foru Legeko eremu batetik bestera pasatzeko

borondate politikoa. Horrenbestez, erabaki edo adierazpen politiko batzuen aurrean gaude, zeinek ez baitute egintza administratibo baten indar exekutibo edo ebazpenekoa, eta, horrenbestez, inongo eragin juridikorik ez dutenak herritarren hizkuntza eskubideetan.

d) Udal ekimen edo erabaki horiek aukera politikoaren esparruan sartzten diren adierazpen politikotzat hartu behar dira; horrenbestez, ezin dira politikaren eta aukera desberdinen adierazpenaren alor horretatik kanpo balioetsi, zeren eta ez baitute birtualitate juridikorik.

e) Ekimen horiek ezin dute juridikoki baldintzatu Nafarroako Parlamentuaren eskumena, bakarrik botere publiko horri baitagokio euskararen lege-araubidearen esparrua eta herritarrengan dauzkan eraginak zehaztea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9.2 artikulua xedatzen duen bezala: “Foru lege batek eskualde horiek zehaztu...”. Horrenbestez, txosten-eskaeran aipatzen diren udal erabakiek ez dute nahasten eta ezin dute nahasi Nafarroako Parlamentuak, bere legegintzabotereaz baliatuta, daukan ahalmena, euskararen araubide juridikoari buruz egokientzat jotzen duena xedatzekoa, goragoko maila duten arauak errespetatzeaz beste mugarik gabe (Konstituzioa, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9.2 artikulua).

f) Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Parlamentua osatzen duten talde parlamentarioek, beren erabakiak hartzeko, udal erabaki horiek har ditzakete kontuan, beste elementu batzuen artean, udalerrri bateko biztanleriaren ordezkarien borondatea adierazten duten neurrian eta, azken batean, herritarrek udalerrri horretan euskara erabiltzeko edo berreskuratzeke edo kontrakoa egiteko daukaten borondatea adierazten duten neurrian.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen dugu aipatzea ezen, txosten-eskaera “udal ekimenei” buruzkoa bada ere, erakunde honen ustez, Eledunen Batzarra planteatzen ari dena, azken batean, dela ea eremu mistotik eremu ez-euskaldunera pasatzea edo eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasatzea bat ote datozen Euskarari buruzko Foru Legearen eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren “helburuekin”. Hau da, gure ustez galdetzen digutena da ea Nafarroako Parlamentuak –eta ez, horrenbestez, udalek, ez baitira eskudunak erabaki hori hartzeko– azkenean hartuko lukeen erabakiak helburu horiek

errespetatuko ote lituzkeen. Hori dela eta, gai hori ikuspegi horretatik landuko dugu txosten honetako hurrengo puntuetan, zeren eta gure ustez horixe baita gaiaren mamia.

Gai hori balioesteko, honako hauek hartu ditugu “erreferentziako parametro” gisa, hau da, gaia arautzen duen edo, kasua bada, inspiratzen duen antolamendu juridiko gisa: Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Euskarari buruzko Foru Legea (jakinda zeinen deigarri gerta daitekeen foru lege horren aldaketa batek parametro gisa hartzea foru lege beraren gainerakoan ezarritakoa; izan ere, koherentea da horrela jokatzeko, zeren eta txosten honen xedea ez baita konstituzionaltasunari buruzko azterketa bat egitea, ez delako hori Eledunen Batzarrak bere eskaeran bilatzen duena, baizik eta azterketa bat egitea eta balioestea udalerrri batzuk eremu mistoan sartzea edo hartatik irtetea bat ote datorren, foru legeak, oro har, dauzkan printzipio eta helburuekin) eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.

Horrenbestez, hemen ez dugu egiten eremu mistoarekin lotutako ekimenen edo neurrien konstituzionaltasunari edo legezketasunari buruzko txosten bat, baizik eta udalerrriak eremu misto horretara edo eremu ez-euskaldunera pasatzeari buruzko txosten bat, Euskarari buruzko Foru Legearen beraren (1.2 artikulua) eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuen ikuspuntutik.

IV. GAUR EGUN EREMU EZ-EUSKALDUNEAN DAUDEN UDALERRIAK EREMU MISTOAN SARTZEARI BURUZKO GOGOETAK.

Behin adierazita eskusiboki Nafarroako Parlamentuari dagokiola erabakitzea udalerrri batek Euskarari buruzko Foru Legeak ezartzen dituen hiru eremuetako batean edo bestean egon behar duen, aurreratu beharra dago udalerrri bat edo batzuk Nafarroako eremu ez-euskaldunetik eremu mistora aldatzea, erakunde honen iritzi, bat datorrela eta ados dagoela, lehenbizi, Euskarari buruzko Foru Legearen 1. artikulua zehazten dituen “ezinbesteko helburuekin”.

Foru lege horrek, bere lehenengo arauan, xedatzen du helburu duela euskararen erabilera “arrunta” arautzea gizarte bizikidetzaren esparruetan; horrenbestez, erabilera “ofizialarenaz” beste eremu batean sartzen da, Nafarroan aplikatzekoak diren neurriak ezartzearen bitartez.

1.2 artikulua horrek berak foru legearen “ezinbesteko helburuak” zehazten ditu; honako hiru hauek dira, hain zuzen:

a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezketasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

1.2 artikuluko helburu horiek dira Euskarari buruzko Foru Legeak bere atarikoan bertan egiten dituen gogoeten adierazpen normatiboa, zeina loteslea baita botere publiko guztientzat. Atariko horren arabera, jotzen da euskara honakotzat jotzen dela Nafarroan (aipamenak ia hitzez hitzekoak dira):

- Foru Komunitatearen kultur ondare nagusia.
- Bizitza sozialaren ezinbesteko euskarria.
- Identifikazio kolektiborako osagaia.
- Gizarteko kideen artean bizikidetzarako eta ulermenerako faktorea.
- Berezko historiaren ikur eta lekukoa, belau-naldiz belaunaldi euskara erabili duten herrietako esperientzia kolektiboa bildu, begiratu eta transmititzen duen heinean.
- Nafarroako Foru Komunitatea harro sentiarazten duen ondarea.
- Nafarroako Foru Komunitateak babestu behar duen altxorra, haren hondatzea eta galera saihestuz.
- Botere publikoek errespetu eta babes berezia eman beharreko kultur ondarea, Konstituzioaren 3.3 artikulua ezarri bezala.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak eremu mistoa udalerrri gehiagorekin zabaltzea erabakitzen duen neurrian, Nafarroako Foru Komunitatea bere hizkuntzaren kultur ondarea modu berezian babesten egonen da, euskarak bizitza sozialaren ezinbesteko euskarri gisa duen rola handituz, gizarteko kideen arteko bizikidetzeta eta ulermena erraztuz, euskara erabiltzen duten herrien esperientzia datozen belaunaldientzako begiratzeko eta transmititzeko, altxor kultural hori babestuz eta kultur ondare horren hondatzea eta galera saihestuz.

Hartara, Nafarroako eremu euskaldunean euskarak hizkuntza ofizialaren izaera hartzen duen bitartean, Nafarroako eremu mistoan (zeinean legeak aitortzen baitu hizkuntza hori existitu egiten dela, errealitate soziolinguistikoan presentzia txikiagoarekin, zeren eta hizkuntza hori existituko ez balitz edo hura erabakitasunez berreskuratzeko helbururik ez balego, ez bailitzateke “mistoa” izanen) botere publikoek honako betebeharrak daukate:

- Euskararen garapena babestea eta berreskuratzea, haren erabilera sustatzearen bitartez [Euskarari buruzko Foru Legearen 1.2.b) artikulua];

- haren erabilera bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera [foru lege beraren 1.2.c) artikulua], eta

- herritarrek Nafarroako berezko hizkuntza hori jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea, hori betetzeko tresnak zehaztuz [foru lege beraren 1.2.a) artikulua].

Azken batez, eremu mistoa zabaltzen den neurrian, agerian geratzen da Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko eskudunek (kasu honetan, botere legegilea) bete egiten dutela Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3.3 artikulua agindutakoa, alegia, euskarari babesa eta errespetu berezia ematea, kultur aberastasun eta ondare gisa. Konstituzio Auzitegiak gogorarazi du “1978ko Konstituzioak nazio espainiarraren errealitate eleanitza aitortzen duela, eta jada ekainaren 26ko STC 32/1986, FJ 1, epaian adierazi zuenez, errealitate horretan berresten da onargarri ez ezik, sustatzeko modukoa ere baden kultur balio bat, zeinak errealitate horretatik ondorio juridiko batzuk lortzen baititu, Espainiako hizkuntza desberdinei izaera ofiziala emateko aukerari begira, haiek guztiak eraginkortasunez babesteari begira eta hizkuntzaren arloko banakako eskubide eta betebeharrak eratzeari begira” (irailaren 26ko 165/2013 epaia).

Halaber, Konstituzioaren arabera euskarak daukan kultur ondarearen (ondare ez-material edo ukiezina) izaera horretan, aplikatzekoak zaizkio Konstituzioaren beste hiru artikulua: horietatik bi politika sozialen eta herritarren eskubideen printzipio gidariak dira, legeria positiboaren arabera; hirugarrena, berriz, autonomia erkidegoen esku-menari edo eginkizunari dagokio:

- Konstituzioaren 44.1. artikulua, botere publiko agintzen die kultura eskuratzea bultzatu eta babes dezatela, guztiak baitute kulturarako eskubidea.

- 46. artikulua arabera, botere publikoaren betebeharrak da Espainiako herrien historia-, kultura- eta arte-ondarearen iraupena –bai eta hura osatzen duten ondasunena ere– bermatzea eta aberastu dadin sustatzea, edozein izan ere horien araubide juridikoa eta titulartasuna.

- 148.1.17. artikulua aukera ematen die autonomia erkidegoei beren gain hartzeko “kultura sustatzearen” arloko eskumenak (horrenbestez, funtzio publikoak eta haiek dakartzaten betebeharrak).

Ikus daitekeen bezala botere publiko eskudun guztien betebeharrak konstituzionalak da Espainiako herrien kultur ondarea –bai eta hura osatzen duten ondasunak ere, horien artean euskara– begiratu eta sustatzea.

Horiexek dira Konstituzioak eta 1986ko Euskarari buruzko Foru Legeak jasotzen dituzten termino zehatzak, eta horiexek behartzen dute Nafarroako Parlamentua, Nafarroako herriaren borondatearen ordezkaria eta organo legegilea izatearen nolakotasun bikoitza baitu, euskara Nafarroan babestu eta sustatzera, eta horrek guztiak, izan ere, ederki ekar dezake euskarak Nafarroan, edo haren zati batzuetan, daukan babes-maila zabaltzea edo babes horri intentsitate handiagoa ematea.

Orain arte eremu ez-euskaldunean zeuden udalerrak eremu misto horretan sartzeak, hartara, ainguratze konstituzional erabatekoa du eta bat dator Euskarari buruzko Foru Legearen ezinbesteko helburuarekin, 1.2.b) artikuluan ezarritakoarekin: “Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz”.

Erakunde honek uste du horixe dela udalerrak batzuk eremu ez-euskaldunetik eremu mistora aldatzearekin bilatuko litzatekeen berreskuratzearen eta garatze zein aberastearen helburua, baldin eta Nafarroako Parlamentuak erabaki hori hartzen badu; izan ere, horri dagokionez, jotzen da udalerrak horiek eremu mistoan sartzea bat datorrela Konstituzioaren eta Euskarari buruzko Foru Legearen helburuekin, eta, horrenbestez, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzen dituela.

Halaber, ikusten da ezen, onesten bada, neurri hori bat etorriko dela Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunarekin –1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon, eta Espainiak berretsia du (2001eko irailaren 15eko EAO)–. Gutuna nazioarteko itun bat da, Espainiako antolamendu juridikoan sartu dena eta botere

publiko guztiek bete beharrekoa ⁽¹⁾. Espainiako Estatuak Europako gutun hori berresteko tresnaren arabera, euskara eremu euskaldunean eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza baten gisara hartu behar da, zeren eta hizkuntza ofiziala baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren arabera.

Halaber, berrespen-tresna horren arabera, euskara Nafarroako eremu mistoan ere eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza gisa hartu beharra dago, zeren eta Nafarroako antolamendu juridikoak babestutako hizkuntza baita, bera tradizioz hitz egin den lurraldeetan.

Alabaina, eremu euskaldunean Gutunaren III. atalean aipatzen diren xedapenak aplikatzekoak diren bitartean –zehazki, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14. artikulua, berariaz aipatzen diren zehaztapenekin–, eremu mistoan soilik dira aplikatzekoak Gutunaren III. ataleko xedapenetatik arrazoiz aplikatu daitezkeenak Gutunaren 7. artikuluan ezarritako helburu eta printzipioekin bat. Horrenbestez, Europako Gutunak eskaera-maila txikiagoa du eremu mistorako eremu euskaldunerako baino, hala eta guztiz ere, une oro bete beharra dago Gutunak hizkuntzari, hitz egiten den toki guztietan, eskaintzen dion babesa.

Araudiaren berezikuntza horrek berekin dakar eremu mistoan, Gutunaren 7. artikulua arabera, ondoko “helburuak eta printzipioak izango direla” botere publikoen “politika, legedia eta jardunaren oinarria”, euskarari dagokionez (Europako Gutunaren 7. artikuluko “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak” adierazpidearen orde, “euskara” hitza erabili dugu, Estatu espainiarrak gutuna berresteko bere egindako konpromisoak ikusarazteko; izan ere, Nafarroako botere publikoek eta, bereziki, botere legegilea, behartzen baitituzte):

a) Euskara aitortzea, kultur aberastasunaren erakuslea da eta.

b) Euskarak hartzen duen geografia-eremua errespetatzea; hala, beraz, administrazio-banaketak, lehendik hor zeudenak nahiz berriak, ez dira oztopo izango hizkuntza hori sustatzeko.

c) Euskara sustatzeko ekintza seguru baten beharra, hizkuntza hori babestearren.

d) Euskara bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea erraztu eta sustatzea.

e) Itunak hartzen dituen esparruetan, harremanak sortu eta garatzea erregioetako edo euskara erabiltzen duten taldeen eta Estatu berean hizkuntza hori erabiltzen duten beste talde batzuen artean, bai eta kultur harremanak sortzea beste hizkuntza batzuek erabiltzen dituzten Estatuko beste talde batzuekin ere.

f) Euskara irakasteko eta ikasteko modu eta bitarteko egokiak jartzea, egoki iritzitako maila guztietan.

g) Bitartekoak jartzea euskara hitz egiten den eremu batean bizi baina hizkuntza hori hitz egiten ez dutenen esku, nahi izanez gero hizkuntza hori ikas dezaten.

h) Euskarari buruzko azterketak eta ikerketak sustatzea unibertsitateetan edo erakunde baliokideetan.

i) Itun honek biltzen dituen arloetan, nazioz gaindiko trukerako era egokiak sustatzea.

j) Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, euskara erabiltzeko egon daitezkeen bereziketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketanak.

k) Euskararen aldeko neurri bereziak hartzea, helburua euskara erabiltzen dituztenen eta gainarako herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada. Neurri horiek ez dira hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat.

l) Aldeek konpromisoa hartu dute, neurri egokiak erabilia, herrialde guztiko hizkuntza-taldeen arteko elkar ulertzea sustatzeko. Horretarako, batez ere, euskararekiko errespetua eta horrenganako ulermena eta tolerantzia jasoko dute herrialdean eskaintzen den hezkuntzan eta prestakuntzaren helburuen artean, eta helburu bera lortzera animatuko dituzte komunikabideak.

m) Aldeek konpromisoa hartu dute euskarari buruzko politikak definitzerakoan kontuan hartzeko hizkuntza horiek erabiltzen dituzten taldeek adie-

(1) Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 17ko 56/2016 epaiak adierazten du ezen, autonomia estatutu batek autonomia erkidego bateko hizkuntza eta hizkuntza-modalitate berezkoak babesten dituen neurrian, “zalantzarik gabe aplikatzekoak direla Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren xedapenak, Espainiako Estatuaren adierazpenaren terminoetan; adierazpen hori Gutuna berresteko 2001eko otsailaren 2ko tresnan jasota dago (2001eko irailaren 15eko 222. EAO)”. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruz, ikus CLOTET I MIRÓ, Maria-Àngels, “La Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias”, Revista de Instituciones Europeas, Madril, 1994, 529-562 orrialdeak.

razitako beharrianak eta gurariak. Aldeei eskatu zaie, beharrezkoa denean, euskal hiztunekin zerkusia duten gaiei buruz agintariak aholkatzeko organoak sortzeko.

Horri guztiari dagokionez, erakunde honek uste du Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legea aldatuz eta eremu mistoan udalerrri gehiago sartuz har dezakeen neurriak Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuak betetzen eta aplikatzen dituela, hain zuzen ere 7. artikuluan zehaztutakoak, eta, horrenbestez, udalerrri horietan bizi diren edo jarduten duten herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzen dituela. Udalerrri gehiago eremu mistoan sartuz, botere publikoek aitortzen dute euskara kultur aberastasun bat dela, eta konpromisoa hartzen dute hizkuntza hori sustatzeko neurriak hartzeko. Neurri horiek botere publiko bakoitzak zehaztuko ditu, antolamendu juridikoak aitortzen dion autonomiarekin.

Hori dela eta, erakunde honek ondorioztatzen du Euskarari buruzko Foru Legearen helburuen araberakoa izanen litzatekeela eskualde ez-euskalduneko udalerrri bat edo batzuk eremu mistora pasatzea, baldin eta Nafarroako Parlamentuak jotzen badu euskaraz badakien edo bera erabiltzen duen populazio bat (giza talde bat dela jota) bada goela –hizkuntza horrek babesa merezi baitu–, edo egiaztatzen badu lurralde batean ezarritako populazioak haren erabilera berreskuratu nahi duela, hori zuzenean nahiz ordezkarien bitartez adierazita; izan ere, azken kasu horretan eskakizun soziolinguistiko bat egonen litzateke, zeina bat etorriko bailitzateke borondatezkotasun, gradualtasun eta errealitate soziolinguistikoari erantzutearen printzipioekin.

Nolanahi ere, egokitzat jotzen dugu iradokitzea ezen, azkenean hartzen den legegintza-erabakiak eremu mistoa zabaltzen baldin badu bertan sartuz eremu ez-euskalduneko udalerrriak, hori gauzatzen duen foru legearen zioen azalpenean jaso dadila zabalpen hori bat datorrela euskararen aitortzarekin eta behar duen eta babes bereziarekin, bai eta bertako hizkuntza hori berreskuratzeko eta garatzeko helburuarekin ere.

V. GAUR EGUN EREMU MISTOAN DAUDEN UDALERRIAK EREMU EZ-EUSKALDUNEAN SARTZEARI BURUZKO GOGOETAK.

Zailtasun handiagoa ikusten dugu legegileak hasieratik, 1986tik, eremu mistoan sartutako udalerrriak eremu ez-euskalduneari sartzeko balizko erabakia dela-eta, hau da, baldin eta Nafarroako Parlamentuaren erabakiek berekin badakarte edo eragiten badute udalerrri jakin batzuetan hizkun-

tzarako hasieran eman zitzaiona baino babes-maila apalagoa egotea.

Kasu horretan, legegileak hartutako neurria urrundu liteke euskara kultur ondare gisa aitortzearen helburuetatik (Konstituzioaren 3.3 eta 46. artikulua eta Euskarari buruzko Foru Legearen atarikoak) edo kultur aberastasun gisa aitortzeko helburutik (Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7. artikulua); izan ere, erabaki horrekin, botere publikoak etorkizuneari ez lirateke jada behartuta egonen eremu mistoari dagozkion ordura artekoak baino neurri trinkoagoak hartzera euskararen erabilera sustatzeko, hura berreskuratu edo babeste aldera, eta, gainera, euskaldunen hizkuntza eskubideen baliatzea geldituko litzateke eremu ez-euskalduneari diharduten administrazioen borondatearen baitan.

Abiapuntutzat hartzen badugu Konstituzioaren 3.3 eta 46. artikuluek, Euskarari buruzko Foru Legearen 1.2 artikulua eta Hizkuntza Eskubideen Europako Gutunaren 7. artikulua botere publikoak behartzen dituztela euskararen erabilera babestera, bereziki errespetatzera, aberastera, berreskuratzera, garatzera eta sustatzera hizkuntza hori presente dagoen eremu edo lekuetan edo herritarrek beren borondatez erabili nahi duten tokietan, eta botere publiko horiek behartzen dituztela, halaber, “eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzaren esparru geografikoa” errespetatzera, halako moduz non “administrazio-banaketak, lehendik hor zeudenak nahiz berriak, ez diren oztupo izango erregioetako edo eremu urriko hizkuntza hori sustatzeko” (Gutunaren 7. artikulua), ondorioztatu beharra dago ezen eremu mistoan (zeinean, horrenbestez, bere garaian aitortu baitzen hizkuntza bazegoela, edo zeinean populazioaren talde batek, ez nahitaez gehiengoak, hura berreskuratzeko borondatea baitu) euskarari babes-maila kenduko liokeen edo beheratuko liokeen legegintza-neurri bat, udalerrri batzuk eremu “ez-euskaldunera” eramateko, urrundu eginen litzatekeela arau nagusi horien funtsezko helburuetatik, eta berarekin ekarriko lukeela Euskarari buruzko Foru Legeak eta hura garatzen duten arauak herritarrei ematen dieten legezko aitortza txikiagoa izatea.

Euskarari buruzko Foru Legeak, jakina den bezala, hiru eremu ezartzen ditu Nafarroan, eta eremu horietako bakoitzari euskaren erabilerarako araubide juridiko bat lotzen dio; aldi berean, araubide juridiko horrek herritar euskaldunen eskubideen estatutua determinatzen du. Eremu euskalduneari, euskara hizkuntza ofiziala da eta herritarren eskubideen estatutua bat dator handiena den legezko aitortza horrekin. Eremu mistoan, euska-

rak babes eta sustapen handiagoa dauzka eremu ez-euskaldunean baino, eta, horrenbestez, herritarren estatutua bat dator babesaren eta sustapenaren legezko aitorten horrekin (alabaina, sustapenari dagokionez, Administrazioari dagokio helburu hori betetzeko egokientzat jotzen dituen neurriak hartzea). Eremu ez-euskaldunean, ordea, zeinean euskara, halaber babestu eta sustatu ahal den –baina ez eremu mistoko intentsitate-maila handiagoarekin–, euskara sustatzeko neurriak har daitezke, baldin eta administrazio publikoek hori erabakitzen badute, baina administrazio horiek ez dute hori dela-eta inongo betebeharrak zehatzik; horrenbestez, herritar euskaldunen eskubideen estatutua bestelakoa da, eta botere publikoei ez zaie ia ezer eskatzen, eremu mistoarekin alderatuta, eremu “ez-euskalduna” deitutakoan euskarak duen legezko aitortza dela eta.

Horrenbestez, eremu mistoaren zati bat eremu ez-euskaldunean sartuko lukeen neurri batek, ikuspegi objektibo batetik, euskaren eta hartan dauden eta botere publikoekiko harremanetan erabili nahi duten herritarren legezko babes-mailaren beherapen bat ekarriko luke. Jakina den bezala, eremu mistoko herritarrek ez dute harremanik soilik kasuko udalarekin (ez baita udalerrri batean dagoen botere publiko bakarra); izan ere, eremu horretan bizilekua izateagatik herritar horiek eskubideen estatutu bat hartzen dute, zeina balia baitezakete botere eta erakunde publiko guztien aurrean, horien jarduketak espazio geografiko horretan eragiten duenean edo hartan proiektatzen denean: kontzejuak, Nafarroako Gobernua eta bere sektore publiko zabala, unibertsitatea, auzitegiak eta epaileak –Euskarari buruzko Foru Legearen 4. artikulua aipatzen duen bezala–, Nafarroako Parlamentua, Estatuko Administrazioa, foru erakundeak, erakunde publikoak eta abar. Hori dela eta, eremuz aldatzeak berekin ekarriko luke herritar horiek hizkuntza eskubideen estatutu baten ordezkari beste bat edukitzea, norainoko txikiagoa duena eta administrazioei eta erakunde publikoei betebeharrak txikiagoak esleitzen dizkiena; horrenbestez, hori atzerapen bat izan daiteke herritar euskaldunentzat, zeren eta ez bailituzkete aitortuta izanen ordura arte zeuzkaten eskubideak. Izan ere, udalerrri bat eremu ez-euskaldunera pasatzen bada, ez da gertatuko herritar batzuek udalerrri horretan ustezko eskubide batzuk aitortu gabe zeuzkatela eta une horretatik aurrera estatus berarekin jarraituko dutela; izan ere gertatuko da ezen, udalerrri hori aspalditik kokatuta zegoen eremu mistotik ateratzearekin, herritar horiei berei aurrerantzean ukatu egingen zaizkiela ordura arte aitortuta zeuzkaten eta balia zitzaizketen eskubide batzuk.

Udalerrri bat eremu batetik bestera eramateak herritarren eskubideen babes-maila dela-eta berekin dakarren beherapen hori modu grafikoago batez ikus daiteke Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzea arautzeari buruzko otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren edukian. 10. artikulua eremu euskalduneko administrazioek administratuekin dauzkaten harremanak arautzen ditu. 15. artikulua eremu mistoko administrazioek administratuekin dauzkaten harremanak arautzen ditu. Alabaina, eremu ez-euskaldunean, foru dekretuak ez ditu arautzen hizkuntza eskubideak direla-eta administrazioek administratuekin dauzkaten harremanak, eta 17.1 artikulua besterik gabe ezartzen du eremu ez-euskalduneko administrazio publikoek interesdunei eskatuko dietela haiei euskaraz zuzentzen dizkieten dokumentuen gaztelaniazko itzulpena aldi berean aurkezten, edo itzulpen zerbitzu ofizialak erabili ahalgo dituztela herritarrei arreta emateko, herritar horiek, beren eskubideez baliatuta, haietara euskara hutsez jotzen dutenean (eremu horretan, administrazio publikoen jarduketak guztiak gaztelaniaz egin behar dira).

Udalerrri bat eremu mistoan sartzeko betebeharrak badakartza botere publikoentzat, baina betebeharrak horiek ez doaz haratago, praktikan; zehazki honako hauek dira betebeharrak horiek: a) euskara sustatzea egokientzat jotzen duten moduan; b) herritarrek euskaraz zuzentzen dizkieten idazkiak hartzea herritarren itzulpena egin dezan agindu ahal izan gabe (Euskarari buruzko Foru Legearen 17. artikulua), eta c) euskara irakaskuntzan sartzeko pixkanaka, progresiboki eta nahikotasunez, bere titularitateko ikastetxeetan euskaraz ikasteko lerroak sortuz eskatzen dutenentzat eta nahi duten ikasleentzat, unibertsitatez besteko mailetan (25. artikulua).

Horri dagokionez, udalerrri bat eremu mistoan sartzeko ez dakarzikie gehiegizko zamak botere publikoei, ez eta betebeharrak saihestezinak ere. Haien gutxieneko betebeharrak dira euskara ondare publikotzat aitortzea, hura babestea eta egokientzat jotzen dituzten baliabide eta tresnak erabiliz sustatzea, autonomiarako eta aukerabiderako tarte zabalarekin. Hori dela eta, eremu mistotik eremu ez-euskaldunera pasatzeko arrazoi gisa ez lirateke alegatu behar hizkuntza horrek toki entitate batentzat izan ditzakeen zamak eta betebeharrak, zeren eta entitate horrek ez baitu aipatutako beste betebeharrak: euskararekiko errespetua adieraztea, hura behar den neurrian babestea eta hura sustatzea egokitzea eta arrazoizkotzat jotzen dituen bideetatik, bere borondatez beste betebeharrak batzuk har ditzan ezertan kendu gabe. Administrazio Publikoetan euskararen erabilera

arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuak, arestian aipatutakoak, ez die eremu mistoko administrazioei inongo betebeharrak gaindiezin edo zama handikorik ezartzen (soilik ageri da erabilera publikoko inprimakiak sortu eta ematea bakarrik interesdunak eskatzen dituzenean, eta hori ezin da gehiegizkotzat jo); izan ere, gainerako guztian aukerakoa edo borondatezkoa da administrazioentzat.

Konstituzioaren, Euskarari buruzko Foru Legearen eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuetatik urruntzeaz gainera, 1986an eremu mistoan sartu zen udalerririk bat eremu ez-euskaldunera pasatzeak eskatuko luke, legegileak egoki ulertuz gero Konstituzioaren 9.3 artikulua botere publikoari ezartzen dizkien segurtasun juridikoaren eta arbitrariotasunaren debekuaren printzipioak, Nafarroako Parlamentuak horretarako behar besteko justifikazioa eta justifikazio egokia ematea.

Baldin 1986tik eremu mistoan dagoen udalerririk bat eremu ez-euskaldunera eraman nahi bada, zehaztu beharko lirateke zein diren aldaketa horren arrazoi soziolinguistikoak, zentzu horretan arrisku oro saihesteko.

Udalerririk bat eremu ez-euskaldunetik eremu mistoan pasatzean jo daiteke Nafarroako Parlamentuak adierazten duela euskara Nafarroako kultur ondare gisa errespetatzeko, babesteko, berreskuratzeko eta garatzeko eta haren erabilera sustatzeko borondatea duela, eta, horrenbestez, txikiagoa da hori justifikatu behar izatearen maila, zeren eta gaztelaniaz besteko hizkuntza bati babes berezia emateko Konstituzioari eta legeetako borondateari erantzuten badi; kontrako kasuan, ordea, 1986tik eremu mistoan dagoen udalerririk bat eremu ez-euskaldunera pasatzearenean, a priori funtsezko helburu horietatik aldentzen den neurria denez eta eremu urriko hizkuntzarako babes-maila txikiagoa dakarrenez, Nafarroako Parlamentuak legegintzako erabakirik hori behar beste justifikatu beharko luke, ez dadin esan ahal legegintza-ekimen horrek kultur ondare bati babes kentzen diola, eta, betiere, justifikazio hori arrazoi soziolinguistikoetan babestu beharko litzateke, ez bestelakoetan.

Euskarari buruzko Foru Legearen beraren atarikoak modu adierazgarrian dioten bezala “ondare hori ezin da babestu eta ez da babestu behar ere hizkuntzen arteko borroka edo aurkaritzaren bidez”. Atarikoak, hizkuntzen arteko gatazkak aurreikusita, honako hau dio:

“Hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen konplexu-

tasun eta aniztasunak etengabeko gorabeherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokienez. Bartzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, bartzuetan hizkuntzaz kanpoko arrazoiek eragina, dudarik gabe nabarmenenak dira. Aldaketa hauek, maiz komunikazioaren oinarri diren kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.”

Euskarari buruzko 1986ko Foru Legeak, bere bilakaeran, bi aldaketa izan ditu, biak ere euskararekiko errespetuko, babeseko eta sustapeneko aurreikuspenak handitzeak –ez murriztekoak–:

– 2010ean, eremu mistoan beste lau udalerririk sartu ahal zitezen (azkenean, hiru izan ziren, udalen autonomia dela eta); eta

– 2015ean, euskararen irakaskuntza eremu ez-euskaldunetan zabaltzeko, bereziki sare publikoko ikastetxeetan.

Halaber, Euskarari buruzko Foru Legeak 5.2 artikuluan jasota dauka eremu euskaldunaren, eremu mistoaren eta eremu ez-euskaldunaren esparru geografikoak berrikusi ahal izan direla. Artikulu horrek honakoa ezartzen du: “Aurreko atalean zehaztutakoa berrikusi daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraikiz”.

Egia da foru legeak “berrikusi” terminoa erabiltzen duela, eta ez “zabaldu” eta, horrenbestez, pentsa litekeela aldaketa zentzu batean zein bestean egin litekeela. Baina, eremu euskalduna eta eremu mistoa zabaltzea foru legeak berak 1.2 artikuluan aipatzen dituen helburuekin bat datorren bitartean –hain zuzen ere, testuaren gainerako inspiratzen duten helburuak dira, “ezinbestekoak” baitira–, eremu horiek murrizteak, ezinbesteko helburu horietatik urruntzen denez, legegilearen behar besteko justifikazioa eskatzen du, irizpide linguistiko eta errealitate soziolinguistikoak aintzat hartzeko irizpideei begiratuta.

Foru legeak honako hauek ezartzen ditu euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzearekin lotutako printzipio gisa: mailakatzea eta errespetua, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera [Euskarari buruzko Foru Legearen 1.2.c) artikulua], eta printzipio horiek “progresiboki” izenaren pean ere ageri dira artikuluetako testuetan (esate baterako, 10.1, 15.1, 25., 26 eta 27. artikuluetan). Horrenbestez, legegileak uneoro bere erabakietan Nafarroako errealitate soziolinguistikoak

hartu behar du aintzat (bai osotasunean bai zati edo eremuetan ere, hau da, euskaraz hitz egiten den herrietan eta taldeetan edo hura berreskuratzearen alde egiten dutenetan). Eta arrazoi hori bera dela eta, Nafarroako Gobernuaren betebeharrak da aldizka euskararen errealitate soziolinguistikoari buruzko azterlanak egitea eta Parlamentuari horien berri ematea (Euskarari buruzko Foru Legearen 5.3 artikulua).

Hartara, bai legegilearen borondatea, bai Euskarari buruzko 1986ko Foru Legearen espiritua dira Nafarroan euskara mailaka babestu, berreskuratzea eta gara dadila, hain zuzen ere modu honetan: herritarrentzat borondatezkoa izanen da, bote-re publikoentzat progresiboa izanen da, eta euskaraz hitz egiten ez duten gainerako herritarrak errespetatu egiten dira. Eremu mistoa zabaltzeko aurreikuspena, jada aipatu den bezala, koherentea da borondate eta izpiritu horiekin, eta ez du justifikazio handirik behar, zeren eta lotuta baitago foru legearen beraren, Konstituzioaren eta Hizkuntzen Europako Gutunaren helburuekin, zeinak jada aipatu baititugu: euskara errespetatu, babestu, berreskuratzea, garatu, aberastu eta sustatzea, eta abar.

Aitzitik, eremu mistoa murrizteak (bertan euskara, eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza gisa presente dago edo sustatu beharra dago) legegilearen justifikazio bat eskatzen du kasu jakin bakoitzean. Eta justifikazio horrek objektiboa izan behar du, behar beste arrazoituta egon behar du eta bakarrik oinarrituko da irizpide linguistikoetan edo errealitate soziolinguistikoarekin lotutakoetan, eta ezin izanen dira aipatu "hizkuntzaz kanpoko arrazoiak", Euskarari buruzko Foru Legearen atarikoan ederki izendatzen diren bezala, eta are gutxiago foru legearen hartzaile diren administrazioen ezintasun materialaren argudioak edo erdaldunak diskriminatzeari buruzkoak, eskualdeko edo "eremu urriko" hizkuntza bat izaki (izan ere, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7.2 artikulua onartu egiten du eremu urriko hiztunen aldeko diskriminazio positiboa).

Izan ere, ondoren aipatzen ditugunak gertatzen badira, are zailago gertatuko da pentsatzea udalerririk bat eremu mistotik eremu ez-euskaldunera aldatzeko justifikazio egokia edo behar bestekoa badagoela: a) udalerririk bat 1986tik eremu mistoan edo eremu euskaldunean egotea; b) udalerririk horretan ezarrita egotea edo biztanle euskaldunak edo euskaldunen taldeak, edo pertsona edo toki entitate batzuek hura erabiltzen jarraitu nahi izatea edo haren erabilera berreskuratzearen alde egitea; eta c) Nafarroako Gobernuaren azterlanik ez ego-

tea, berriki egindakoa, behar beste frogatzen duena udalerririk horretako errealitate soziolinguistikoak eskusiboki elebakarra dela, euskaldunak desagertzearen ondorioz, halako moduz non "erabilera tradizionala" deitutakoa hautsi baita.

Euskarari buruzko Foru Legeak 1986an jada babes maila bat eman zion euskarari eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalerrietan, eta, horrenbestez, beheragoko maila baterako edozein aldaketak puntu horretan adierazitakoa hartu beharko luke kontuan. Ingurumena babestearen arloan autonomia erkidegoetako legediak estatuko legediak ezartzen dituzenez gainerako babes-arauak ezar ditzakeen bezala (Konstituzioaren 149.1.23.a artikulua) –ezin du, beraz, babes-maila txikiagoa ezarri– edo hirigintza-araudi batek kultur ondasun baterako babes-maila bat ezar dezakeen bezala, baina babes-maila hori a posteriori ezin behera dezakeen bezala behar adinako justifikazioa eduki gabe, horrek berekin dakarrelako aldaketa hori zuzenbidez deuseza dela (Auzitegi Gorenaren 2010eko apirilaren 21eko epaia), foru legegileak ere ezin luke euskararen babes-maila beheratu neurri hori behar adina eta objektibotasunez justifikatu gabe.

Horrekin, ez dugu esan nahi Euskarari buruzko Foru Legearen eremuen araberrakoa banaketa ezin alda daitekeenik eta udalerririk jakin batek betiko egon iraun behar duenik eremu mistoan eremu ez-euskaldunera aldatzeko aukerarik eduki gabe.

Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 17ko 56/2016 epaiak adierazten duen bezala –Aragoiko hizkuntzen eta hizkuntza modalitate propioen erabilerririk, babesari eta sustapenari buruzko Aragoiko Gorteen maiatzaren 9ko 3/2013 Legeari buruz ari dela– "oinarritik baldintza bat da, printzipio demokratikoari lotua, iraganeko legegileak ezin duela etorkizuneko legegilea lotu eta, horrenbestez, ez dagoela legea mantentzeko edo haren babesean sortutako egoera juridikoen ukiezintasunerako eskubide orokorrik. Eta segurtasun juridikoaren printzipioak edozein zuzenbideko estatutan ezartzen duen arren arauen segidak baldintza batzuk bete behar dituela, baldintza horien artean ez dago erreforma gutxiesgarriaren debekuarena. Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua, segurtasun juridikoa bermatzeaz batera, debekatzen duena ez da banakako eskubideen aurkakoak diren edo haiek murrizten dituzten zehapen-xedapenen aldaketa, baizik eta haien atzeraeragina; eta xedapen horiei dagokienez, 9.3 artikulua debekatzen duena da lege berriak eragina izan dezala aurreko egoeretan jada sortu diren efektu juridikoetan, halako moduz non eskubide horietan izandako eragina, etorkizunerako proiektioari

dagokionez, ez baita izanen atzeraeraginaren esparru zorrotzekoa.

Adierazi nahi duguna da udalerrri bat eremu mistotik eremu ez-euskaldunera pasatzeko aldaketa bat gertatuko balitz, hori behar beste justifikatu beharko lukeela legegileak, arrazoi hertsiki soziolinguistikoetan oinarritu beharko litzatekeela eta ez lukeela izan beharko kultur ondarearen babesa eta sustapena direla-eta Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak ezartzen dituzten helburuen aurkakoa.

Hartara, adibidez, ez litzateke Euskarari buruzko Foru Legearen helburuen aurkakoa, ez eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aurkakoa ere, Nafarroako Parlamentuak erabakitzea udalerrri bat eremu mistotik eremu ez-euskaldunera pasa dadila, parlamentu horrek ikusten badu, zalantzarik gabeko moduan eta zientifikoki, euskaraz badakien edo erabiltzen duen giza talderik, populaziorik edo entitaterik ez dagoela eta, gainera, egiaztatzen badu herritar ia guztiek edo gehien-gehienek ez dutela euskararen erabilera berreskuratu nahi, eta hori zuzenean edo bere ordezkarien bitartez adierazia dutela.

VI. AZKEN GOGOETAK.

Txosten hau ahal bezain laster egin dugu, berehala eta zuzenean, Nafarroako Parlamentuak urgentziaz eskatu baitigu. Hura egiteko, oinarri hartu dugu Eledunen Batzarraren eskaera, III. puntuan adierazitako modulazioarekin, eta hura osatu dugu hedabideetan argitaratzen joan den eta jakin ahal izan dugun informazioarekin.

Nolanahi ere, erakunde honek errespetatu egingen du, hala behar baitu, talde parlamentario eta foru parlamentari guztiek eztabaida honetan aipatzen den gaiari buruz daukaten jarrera, bai eta, kasua bada, Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena onesteari buruz izan dezaketen jarrera ere, eta gogoeta politiko orotatik kanpo dago.

Erakunde honek txostena Nafarroako Parlamentuak eskatuta eman du, bere independen-tziarekin eta autonomiarekin eta bere jakinduria leialean oinarrituz, betiere txostenaren helburuari aplikatzekoa zaiola jo duen antolamendu juridikoaren ikuspuntutik eta hari guztiz lotuta.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 23an

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

